

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

HERNANIKO UDALA

*Hernaniko kirol ekintzetarako eta kirol ekitaldi edota jarduera berezietarako eta formakuntzarako dirulaguntzak eskuratzeko oinarri bereziak eta 2024ko deialdia. BDNS (Identif.): 765365.*

Dirulaguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Dirulaguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/765365>).

2024ko maiatzaren 30ean egin zen Tokiko Gobernu Batzordeak, erabaki zuen dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarri orokorrak eta deialdia onartzea. Horien artean:

– Kirol ekintza eta jarduera berezietako dirulaguntzak eskuratzeko oinarri bereziak, honako jarduera lerro hauen arabera:

- A) 1 lerroa: Ohiko dirulaguntzak.
- B) 2 lerroa: Ezohiko dirulaguntzak.
- C) 3 lerroa: Kirol ekintza edo jarduera berezietarako eta formakuntzako dirulaguntzak.

*Onuradunak:* Irabazi asmorik ez duten klubak eta elkarteak.

*Helburua:* Deialdi honen helburua da, Hernaniko udalerrian kirol arloko dirulaguntzak ematea hainbat kirol programa, jarduera eta ekitaldi antolatzeagatik. Kirol jarduera horien xedea da herrian kirola sustatzea, eta ez dute irabazi asmorik izango. Gainera kirol arloan interes orokorrekoak izan beharko dute.

Dirulaguntza lerroa hauek 2023-25erako dirulaguntza Plan estrategikoa, Araudiaren 7. artikuluan xedatutakoa garatzeko ematen dira.

*Kopurua:* Programa honen bidez deitutako dirulaguntzen zenbatekoa 71.000 euro izango da, eta Hernaniko Udaleko 102.481.01.341.00 2024 aurrekontu partidaren kargura izango da, lehia-keta bidez. Dirulaguntzak: Kirol ekintzak partidari dagokionez kontabilizatuko da. Dirulaguntza ondoko lerroetan banatua dago:

- Ohiko kirol ekintzak (55.000 euro).
- Ezohiko kirol ekintzak (6.000 euro).
- Kirol ekintza edo jarduera berezietarako eta formakuntzako dirulaguntzak (10.000 euro).

*Epeak:* 15 egun natural, deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Pertsona edo kolektibo interesdunek udalaren web orrian aurkitu dezakete informazio zehatza: <http://www.hernani.eus/eu/dirulaguntzak>. Eta Herritarren Harrera Zerbitzuan (HHZ).

Hernani, 2024ko maiatzaren 31.—Xabier Lertxundi Asteasuinzarra, alkatea. (4119)

AYUNTAMIENTO DE HERNANI

*Convocatoria 2024 y bases específicas de concesión de subvenciones para actividades deportivas, y eventos y actividades deportivas especiales y de formación en Hernani. BDNS (Identif.): 765365.*

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/765365>).

Con fecha del 30 de mayo, la Junta de Gobierno Local, acuerda aprobar las bases generales y la convocatoria para la concesión de las subvenciones que se contemplan en dicha resolución. Entre ellas, la siguiente:

– Bases específicas para conceder subvenciones para actividades deportivas y eventos o actividades especiales, divididas en las siguientes tres líneas:

- A) Línea 1: Subvenciones ordinarias.
- B) Línea 2: Subvenciones extraordinarias.
- C) Línea 3: Subvención de eventos deportivos y actividades especiales y de formación.

*Beneficiario:* Subvenciones destinadas a clubes y Asociaciones sin fines de lucro.

*Finalidad:* Es objeto de la presente convocatoria la concesión de subvenciones en el área de Deportes del municipio de Hernani por la organización de diversos programas, actividades y eventos deportivos. Estas actividades deportivas tienen por objeto la promoción del deporte en la localidad, sin ánimo de lucro. Además, deberán ser de interés general en el ámbito deportivo.

En estas subvenciones se tendrá en cuenta la Ordenanza reguladora de las subvenciones del Ayuntamiento de Hernani, Plan Estratégico de Subvenciones 2023-2025, que se dictan en desarrollo de lo dispuesto en el artículo 7 del Reglamento.

*Cantidad:* El importe de las subvenciones convocadas a través de este programa será de 71.000 euros, con cargo a la partida presupuestaria 102.481.01.341.00 2024 del Ayuntamiento de Hernani, y por concurso se contabilizará en relación a la partida Subvención: actividades deportivas. La subvención se divide en las siguientes líneas:

- Subvenciones ordinarias (55.000 euros).
- Subvenciones extraordinarias (6.000 euros).
- Subvención de eventos deportivos y actividades especiales y de formación (10.000 euros).

*Plazos:* 15 días naturales a partir del día siguiente a la publicación del anuncio de la presente convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

La información detallada se encuentra a disposición de las personas o colectivos interesados en la página web del ayuntamiento: <http://www.hernani.eus/es/subvenciones> y en Servicio de Atención a la Ciudadanía (SAC).

Hernani, a 31 de mayo de 2024.—El alcalde, Xabier Lertxundi Asteasuinzarra. (4119)